



Parte hartzeko baldintzak

TENDENCIAS CREATIVAS

00. Data garrantzitsuak
01. Antolakuntza.
02. Tokia, data eta ordutegia.
03. Erakusketarien parte-hartzea.
04. Standa eta zerbitzuak kontratatzea.
05. Tailerrak.
06. Premium erakusketaria: Publizitatea webgunean eta sare sozialetan
07. Baldintza ekonomikoak eta ordainketari dagozkionak.
08. Erakusketariaren eskubideak.
09. Derrigorrezko aseguruak.
10. Baimenak eta lizentziak.
11. Muntatzeko eta desmuntatzeko, merkantziak sartzeko eta ateratzeko datak.
12. Harremanetarako helbide elektronikoak eta telefonoak.

DATA GARRANTZITSUAK.

2024/01/02	Derrigorrezko Zerbitzuen eskaerak jasotzeko epearen itxiera. Banku-helbideratzea eskatzeko azken eguna.
2024/01/08	Inprimatutako Katalogoan sartzeko azken eguna.
2024/01/15	Parte-hartzeari dagokion fakturaren epemuga.
2024/01/16	Hautazko Zerbitzuen eskaerak jasotzeko itxiera.
2024/01/31	Muntaketa. *
2024/02/01-04	<h3>Tendencias Creativas</h3> <p>Publiko bisitariarentzako ordutegia:</p> <ul style="list-style-type: none">• Osteguna, ostirala eta larunbata - 10:00etatik 20:00etara.• Igandea: 10:00etatik 18:00etara <p>Enpresa Erakusketariarentzako sartzeko eta produktuak birjartzeko ordutegia: Enpresa erakusketariek publikoarentzako zabaldu baino bi ordu lehenago sartu ahal izango dute eta azoka itxi baino 2 ordu geroago atera ahal izango dira:</p> <ul style="list-style-type: none">• Osteguna, ostirala eta larunbata – 08:00etatik 10:00etara eta 20:00etatik 22:00etara.• Igandea – 08:00etatik 10:00etara.
2024/02/04-05	Desmuntatzea. *

* Muntatu eta desmuntatzearen xehetasunak 11. atalean aurkituko dituzu.

1. ANTOLAKUNTZA

TENDENCIAS CREATIVAS azokaren antolaketa eta zuzendaritza Bilbao Exhibition Centre, SA (BEC) eta INITIALES enpresaren (Frantzia) esku dago. Komunikazio guztiak hona bidaliko dira:

BILBAO EXHIBITION CENTRE, SA- BEC
Tendencias Creativas
Ronda de Azkue, 1- 48902 Barakaldo
☎ (+34) 94 404 00 00 - ✉ tendencias@bec.eu
www.tendenciascreativasbilbao.com

2. EKITALDIAREN LEKUA, DATA ETA ORDUTEGIA

TENDENCIAS CREATIVAS - Eskulanen Azoka 2024ko otsailaren 1, 2, 3 eta 4an egingo da Bilbao Exhibition Centre - BECen, Barakaldon (Bizkaia).

Publiko bisitariarentzako irekiera-ordutegia hau izango da:

- Osteguna 1, ostirala 2 eta larunbata 3 - 10:00etatik 20:00etara.
- Igandea, hilak 4 - 10:00etatik 18:00etara

Bisiten ordutegian zehar, standetan enpresa erakusketariak egongo dira harrera egiteko, eta materiala bistan egongo da.

Enpresa erakusketariak publikoarentzako zabaldu baino bi ordu lehenago sartu ahal izango dute eta azoka itxi baino 2 ordu geroago atera ahal izango dira produktuak birjartzeko:

- Osteguna, ostirala eta larunbata - 08:00etatik 10:00etara eta 20:00etatik 22:00etara.
- Igandea - 08:00etatik 10:00etara

Inaugurazio ofiziala: ostegunean, hilaren 1ean, 12:00etan.

3. ERAKUSKETARIEN PARTE HARTZEA

Pertsona fisiko edo juridiko publiko edo pribatu guztiek eskatu ahal izango dute azokan parte hartzea, baldin eta beren jarduerak azokaren xede diren sektoreetan sartzen badira.

Erakusketarako onartutako produktuen merkatariak, fabrikatzaileak eta banatzaileak eta produktu eta zerbitzu horien agente eta ordezkariak erakutsi ahal izango dute. Ez dago baimenduta enpresa ez erakusketariaren publizitatea egitea, ezta publizitate-materiala standetatik kanpo banatzea ere. TENDENCIAS CREATIVAS erakundearen antolakuntzak eta zuzendaritzak onartu edo ukatu ahal izango du, kalte-ordainik jasotzeko eskubiderik gabe, eskatzaileak lehiaketan parte hartzea, ekitaldiaren intereseko antolaketa-irizpideen arabera. Onarpenaren berri komunikazio ofizial baten bidez emango da. Zuzeneko salmenta baimenduta dago.

4. STANDA ETA ZERBITZUAK KONTRATATZEA

STANDAREN KONTRATAZIOA

Kontratatzeko gutxienerako azalera 6 m²-koa da. Kontratatzeko, parte hartzeko eskaera behar bezala bete, sinatu eta tendencias@bec.eu helbidera bidali behar da.

BECek eskubidea du esleitutako azalera edo kokalekua aldatzeko, baldintzek hala eskatuko balute, eta horrek ez dakar kalte-ordaina jasotzeko eskubiderik.

PARTE HARTZEKO FORMATUAK

Melamina zurizko stand modularra, izen komertziala duen bandera led-argiztapena, industriako baimena, konexio elektrikoa, kontsumo elektrikoa eta 2Kx entxufea, aparkalekua muntaketan, azokan eta desmuntaketan zehar, eta online Direktorioan eta inprimatutako Katalogoan sartzea.

	6 m ²	8 m ²	10 m ²	12 m ²	18 m ²
Standa	1.096 €	1.428 €	1.594 €	1.760 €	2.258 €
Standa tailerrarekin*	-	-	1.428 €	1.594 €	1.928 €
Adierazitako prezioei BEZa aplikatuko zaie (% 10)					

* Standa *tailerrarekin* kontratuz gero, enpresa erakusketariak konpromisoa hartzen du bere standean tailerra eskaintzeko eta datu hauek ematea derrigorrezkoa izango da:

- Tailerraren izenburua	- Deskribapena eta sektorea	- Eskainiko pertsona duen
- Pertsonako prezioa	- Gehieneko parte-hartzaile kopurua	- Ordutegia

Tailerra eskaintzen duen pertsona artista edo sortzaile ezaguna baldin bada, jakinarazi diezaguzu alde zuzenetik bere izena eta datuak, bitarteko desberdinen bidez zabaltzeko.

ZERBITZUAK KONTRATATZEA

Beharrezko hautazko zerbitzuak kontratatzeko, hemen egin dezakezu:

1 - www.tendenciascreativasbilbao.com webguneko “Erakusketarien Eremu Pribatua” atalaren bitartez, BECek emandako “erabiltzailea” eta “pasahitza” erabiliz.

2 - serviciostendencias@bec.eu helbidera zuzenduz zuzenean.

GARRANTZITSUA: 2024/01/16 izango da hautazko zerbitzuak kontratatzeko azken eguna.

5. TAILERRAK

Tendencias Creativas azoka dagoen bitartean tailer bat edo hainbat eskaini nahi duten erakusketariek bi aukera dituzte:

- **Beren Standean bertan.** “Standa tailerrarekin” aukera kontratatuz gero. Xehetasun gehiagorako, kontsulta ezazu “Parte hartzeko formatuak - Standa eta zerbitzuak kontratatzea” atala.
- **BECek tailerrak eskaintzeko gaitutako eremu komunean.** “Standa” aukera kontratatuz gero. Beharrezkoa izango da zure tailerreko xehetasunak gehitzea parte hartzeko zure eskaeraren “Tailerra Eremu Komunean” atalean, 2024/01/08 baino lehenago. Erakusketariak konpromisoa hartzen du tailerra gauzatzeko beharrezko materialaren prezioa soilik kobratzeko parte-hartzaileei.

BECek tailerretako ordutegien banaketa parekidea egingo du ezarritako epearen barruan jasotako eskarien artean.

Ezarritako epearen barruan jakinarazitako tailerren datuak inprimatutako katalogoan argitaratuko dira eta www.tendenciascreativasbilbao.com webgunearen “jarduerak” atalean.

6. PREMIUN ERAKUSKETARIA: PUBLIZITATE NABARMENA WEBGUNEAN ETA SARE SOZIALETAN

Prezioa: 100 € + BEZa % 10. Zerbitzu hau 15 enpresatarara mugatuta dago, eta honako hauek barne hartzen ditu:

Webgunea: www.tendenciascreativasbilbao.com

- Zure logotipoa agertuko da PREMIUM ERAKUSKETARI gisa ekitaldiaren orrialde nagusian, zure webgunerako esteka zuzenarekin batera.
- Zure logotipoa, izen komertziala eta zure webgunerako esteka atal honetan: “Premium erakusketariak”
- Zure logotipoa eta izen komertziala leku eta kolore nabarmen batean “Erakusketarien Online Direktorioan”.

Sare sozialak - Tendencias Creativas-en Facebook eta Instagram

- Facebookeko eta Instagrameko orrialdean zure enpresako produktuei eta/zerbitzuei buruzko edukia duen posta argitaratuko da.
- Argitaratzeko aldia: 2024ko urtarrilaren 2tik 30era.

Erakusketariak berak emango ditu testuak eta argazkiak, eta Tendencias Creativas azokako Komunikazio Sailak ikuskatuko ditu argitaratu aurretik. Hona igorri beharko dira: comunicacion@bec.eu

7. BALDINTZA EKONOMIKOAK ETA ORDAINKETARI DAGOZKIONAK

ORDAINKETA eta FAKTURAREN EPEMUGA

BECek ez du eskatzen aldeztu aurretik inolako berme-gordailurik ordaintzea.

Erakusketariak bere parte-hartzeari dagokion zenbateko osoa ordaindu beharko du 2024/01/15ean faktura iraungi aurretik.

Ordainketak transferentzia edo helbideratze bidez egingo dira, parte hartzeko eskaeran hala adieraziz gero. Banku-helbideratzea eskatzeko azken eguna: 2024/01/02

Erakusketariak ordaintzeko betebeharra betetzen ez badu, ez zaio inolaz ere utziko pabilioian sartzeko bere standak dekoratzen eta muntatzen hasteko, eta BECek eskubidea izango du hasieran esleitutako lekua erabiltzeko.

EZEZTATZEA

Tendencias Creativaseko Zuzendaritzak parte hartzeko eskaera onartzen badu eta erakusketariak edozein unetan atzera botatzen badu parte-hartzea, idatziz jakinarazi beharko du tendencias@bec.eu helbidean eta ordaindutako diru guztia galduko du.

8. ERAKUSKETARIAREN ESKUBIDEAK

Kontratututako azalera eta standaz gain, parte hartzeak zerbitzu hauek barne hartzen ditu kostu gehigarririk gabe:

▪ **ERAKUSKETARIEN ONLINE KATALOGOA.**

Logoa eta irudia, eta jardueraren eta produktuen deskribapena gehitu dezake, baita www.tendenciascreativasbilbao.com webguneko “Erakusketarien Eremu Pribatua” atalean datuak eguneratu eta osatu ere, BECek emandako “erabiltzailea” eta “pasahitza” erabiliz.

▪ **TENDENCIAS CREATIVASEN INPRIMATUTAKO KATALOGOA.**

Tendencias Creativas azoka egin bitartean bisitarien artean banatuko den gida da.

Katalogo horretan argitaratuko da 2024/01/08 aurretik parte hartuko dutela baieztatu duten enpresa erakusketarien zerrenda alfabetikoa. Horrez gain, informazio hau gehituko da:

- Enpresa erakusketariaren izen komertziala, jarduera, webgunea eta sare sozialak, baita pabiloian izango duen kokapena ere.
 - Jarduerak: tailerrak eta erakusketak.
- **GONBIDAPENAK:** Enpresa erakusketari bakoitzak gonbidapenak jasoko ditu bere bezeroen artean banatzeko. Esleitutako gonbidapenen kopurua standaren tamainaren arabera izango da:

12 m² bitarteko standak

20 gonbidapen

18 m² bitarteko standak

30 gonbidapen

20 m² bitarteko standak

40 gonbidapen

▪ **ERAKUSKETARIEN AKREDITAZIOAK.**

Ezinbestekoak dira muntaketan, azokan eta desmuntaketan zehar, erakusketari gisa identifikatzeko eta BECera sartzea errazteko.

Garrantzitsua: www.tendenciascreativasbilbao.com webguneko “Erakusketarien Eremu Pribatua” atalean eskatu behar dituzu zure akreditazioak, BECek emandako “**erabiltzailea**” eta “**pasahitza**” erabiliz. Posta elektronikoko bidez jasoko dituzu zure akreditazioak.

▪ **APARKALEKURAKO BAIMENA.**

Erakusketari bakoitzak aparkalekurako doako baimen bat jasoko du eta balekoa izango da azoka muntatu, egin eta desmuntatu bitartean.

Azoka egin aurreko egunetan, QR kode bat bidaliko dizugu posta elektronikoko bidez, BECeko aparkalekura doan sartu eta atera ahal izateko. Hala ere, aparkatzeko behar bereziren bat izango bazenu, jar zaitez gurekin harremanetan helbide elektronikoko honen bidez: tendencias@bec.eu

BAIMENDUTA EZ DAUDEN JARDUERAK

- Irudiak esleitutako espaziotik kanpo (standa) proiektatzea, ez hormetan, ezta sabaietan ere.
- Eremuko korridoreetan edo komunikazio-eremuetan muntaketak egitea, ekitaldiko Zuzendaritzaren berariazko baimena izan ezean.
- Beste erakusketari edo bisitarietara molestatuko dien edozein erakustaldi zaratatsu egitea. Standeko zaratak ezingo du 60 dezibelio baino altuagoa izan.
- Erakusketaria izango da standaren egitura fisikoan egindako aldaketengatik eratorritako kalteen erantzulea eta standean dagoen materialaren, pertsonen edo objektuen eta bisitarien galera, kalte edo istripu ororen erantzule, eta ezingo dio inolaz ere antolakuntzari egotzi erantzukizuna.
- Azokako megafonia-zerbitzu orokorra erabiltzea ekitaldian dauden enpresen publizitate komertziala egiteko.
- Propaganda banatzea eta azokako korridoreetan erakusketak egitea, bai pabiloian, bai atarian eta hallean.
- Debekatuta dago berariaz kontratu hau lagatzea. Halaber, debekatuta dago standa beste enpresa edo komertzio bati uztea, eta standeko banderaren testuak bat egin behar du kontratua sinatu duen enpresarekin.

9. DERRIGORREZKO ASEGURUAK

BECek Erantzukizun Zibilerako poliza du kontratatuta eta azoka dela eta hirugarrengeoi eragindako kalte material eta fisiko guztiak barne hartzen ditu. Kalte-ordainen muga 1.200.000 €-koa da jazoera bakoitzeko.

Antolakuntza ez da erantzule egingo standean dauden materialen eta objektuen lapurretaz edo ebasketaz, ezta azoka egin aurretik, bitartean edo ondoren izan ditzaketan kalteez ere, baina, hala ere, zaintza-zerbitzuak ezarriko ditu.

10. BAIMENAK ETA LIZENTZIAK

Antolakuntza ez da stand bakoitzean saldu eta/edo kontsumitutako produktuen erantzule egingo. Bisitariak erreklamazioak izanez gero, dagokion enpresa erakusketariari bideratuko zaizkio.

Erakusketariak produktuen erakusketarako, jabetzarako, erakusgarriko, manipulaziorako edo erabilerarako legez beharrezkoak diren lizentziak, baimen administratiboak edo baimenak izan beharko dituzte, esleitutako espazioan dituzten ondasun-mota guztientzat.

Ekitaldiaren Zuzendaritzak eskumena du harremana hasi aurretik edo bitartean edo ondoren, betebeharrak horiek betetzen direla egiaztatzeko dokumentuak aurkez ditzaten eskatzeko.

Erakusketariak berariazko baimena eta doakoa emango dio antolakuntzari argazkiak edo filmak egiteko, eta langileei baimena emango die standean erakusten diren produktuen argazkiak edo filmak erabiltzeko. Halaber, irudi horiek edozein euskarritan libre erabiltzeko baimena ematen du.

11. MUNTATZEKO ETA DESMUNTATZEKO DATAK. MERKANTZIEN SARRERA ETA IRTEERA

Muntaketa 2024ko urtarrilaren 31ko 22:00ak baino lehen amaitu beharko da.

Erakusketariak nahitaez errespetatu behar ditu istripuen eta suteen prebentzioari buruz indarrean dauden xedapen guztiak, eta muntaia-txartelak beteta eduki behar ditu pabiloira sartzeko kontrola egiteko.

MUNTAKETA -AZOKA- DESMUNTAKETA EGUNETAN IBILGAILUAK SARTZEKO ETA BERTAN UZTEKO ARAUDIA

- 1) Gehieneko karga 3.500 kg-tik gorakoa duten ibilgailuak: **Hiru ordu.**
- 2) Gehieneko karga baimendua 3.500 kg-koa edo baxuagoa duten ibilgailuak: **Bi ordu.**
- 3) Turismoak eta monobolumenak: **Ordubete.**

Denbora-tarte horiek gainditzen dituzten egonaldiak orduko 30,00 €-rekin zigortuko dira.

Merkantziak sartzeko ateen aurrean, larrialdietarako irteeretan eta suteen aurkako instalazioetan ez aparkatu.

• MUNTAKETA ETA MERKANTZIAK SARTZEA (urtarrilak 31)

Asteazkena, urtarrilak 31.

○ **08:00etatik 15:00etara.**

Erakusketariak beren standera hurbildu ahal izango dira materiala deskargatzeko, eta ibilgailuak korridoreetatik, pabiloitik eta pabiloietako perimetro-eremutik kanpo atera beharko dituzte deskargatzeko lanak amaitutakoan (zuzendaritzaren baimena izan ezean). Instalazioetako aparkalekuetan utz ditzakete.

○ **15:00etatik 22:00etara.**

Pabiloia garbitzea errazteko, ibilgailua pabiloira sartzeko ateraino SOILIK hurbil daiteke, edo BECecko aparkalekuko zure aparkalekura. Ez dago baimenduta zure ibilgailuaren pabiloira sartzea.

• DESMUNTAKETA ETA MERKANTZIEN IRTEERA (otsailak 4 - otsailak 5)

Igandea otsailak 4.

○ **18:00etatik 18:30era.**

Standa Tendencias Creativas amaitzen den gauean bertan desmuntatu nahi duten erakusketariak 18:00etatik aurrera egin dezakete, ordu horretan ixten baita azoka, baina ibilgailuek ezingo dute pabiloira sartu.

○ **18:30etik 24:00etara.**

Erakusketariak ibilgailua pabiloira sartu ahal izango dute desmuntatzen jarraitzeko, pabiloia itxi arte, 24:00ak arte.

Astelehena, otsailak 5. 08:00etatik 15:00etara. Desmuntaketaren amaiera.

12. HARREMANETARAKO HELBIDE ELEKTRONIKOAK ETA TELEFONOAK

Merkataritza Saila:

☎ (+34) 94 40 40 051 / 82

✉ tendencias@bec.eu

Zerbitzuen Saila:

☎ (+34) 94 40 40 000 (luz. 4)

✉ serviciostendencias@bec.eu

Administrazio Saila:

☎ (+34) 94 40 40 123

✉ administracion@bec.eu

Bisitarien Saila:

☎ (+34) 94 40 40 000 (luz. 2)

✉ visitencias@bec.eu

Komunikazio Saila:

✉ comunicacion@bec.eu

Akreditazioak:

✉ acreditaciones@bec.eu